

Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateak Berdintasunaren aldeko ekintza berezia antolatu du ostiralean Oñatin.

2013/10/16

Berdintasuna sustatze aldera, Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateak ekintza berezi bat antolatu du ostiral honetan 8:00etatik 14:00etara Oñatiko campusean.

Zer onura dakar berdintasunak lelopean eta galdera honi erantzun nahian campuseko harreran bertatik pasatzen diren guztiei galdera hau luzatuko zaie, beraien erantzunak argazkietan jasoz.

Jarduera hau Emakundez bultzatzen duen X.Berdintasunaren Gunea-ren barne kokatzen da, hau da, urria guztian zehar egiten ari diren ekintza desberdinetako bat izango da. Ekintza honen antolaketan Fakultateko berdintasun taldeaz gain ikasle eta irakasleen parte-hartzea azpimarratu behar da.

Lortzen diren emaitzak bestalde, fakultateko webgune eta sare sozialen bitartez zabalduko dira: www.mondragon.edu/enpresagintza

